

EBAZPENA, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, 2019ko, 2020ko, 2021eko eta 2022ko lan-eskaintza publikoei dagozkien sarbide modalitate orokorreko ohiko prozesuaren bidez funtzionario gisa sartzeko onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartzeko dena.

Errektorearen 2022ko urriaren 20ko Erabakiaren bidez, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako funtzionario eta lan kontratuko langileentzako 2019ko, 2020ko, 2021eko eta 2022ko enplegu publikoaren eskaintzei dagozkien oinarri orokorrak bai eta funtzionarioen barne-sustapenekoak ere argitaratzea agindu zen.

2022ko azaroaren 30ean, argitaratu ziren UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileak A, B, C, D eta E taldeetan karrerako funtzionario gisa sartzeko enplegu publikoa egonkortasunerako ezohiko prozesua arautzeko oinarri espezifikoak.

2023ko maiatzaren 8an argitaratutako onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenden erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, zerrenda horiek aztertu eta baietsitako erreklamazioetatik eratorritako aldaketak egiten dira.

Arestian adierazitakoagatik eta errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko erabakiaren bidez (2021eko otsailaren 12ko EHAA) pertsonalaren alorrean eskuordetu zaizkidan ahalmenez baliatuz,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileen A, B, C, D eta E taldeetan sarbide modalitate orokorreko ohiko prozesuaren bidez funtzionario gisa sartzeko deialdi espezifikoetan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartzea, dagozkien eranskinetan, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoiak adieraztea.

Lehiakideak hautaketa-prozesuetan behin betiko onartzeak lehiakideek prozesu horietan eskatzen diren baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituztela ulertzea dakar, lehiakideek aurkeztutako eskaeretan egiazkotzat aitortu dituzten eta eman dituzten datuen arabera. Edonola ere, lehiakideen behin betiko onarpena 7.5 eta 10.3 oinarrietan adierazitakoari kalterik egiteke ulertuko da.

Bigarrena.- Erabaki hau UPV/EHUko web orrian argitaratzea (<https://www.ehu.eus/eu/web/azp/ohioko-prozesua-funtzionarioak>) baita UPV/EHUko iragarki-oholetan ere.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean. Epe horiek deialdian adierazitako hedabideetan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko dira.

Errektoreak 2021eko urtarrilaren 28ko erabaki bidez eskumenak erabiliz (2021eko otsailaren 12ko EHAA)

MIREN LOREA BILBAO ARTECHE
UPV/EHUko GERENTEA